

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroan zirkulazioko istripuz hildako pertsonen kopuruak % 37,5 egin du behera 2012ko lehen lauhilekoarekin alderatuz

*Apirilean bi hildako izan dira zirkulazioko istripuetan, iaz hilabete berean izan zirenak baino bat gutxiago*

Jueves, 02 de mayo de 2013

Aurtengo lehen hilabeteotan hamar lagun hil dira zirkulazioko istripuan Nafarroan, haietako zortzi Foru Komunitateko errepide-sarean eta beste biak herri barruko bideetan. Hau da iaz hilabete berean izan ziren hildako-kopurua baino % 37,5 gutxiago, 2012an 16 heriotza izan baitziren.

Denboraldi horretan ere zauritu larrien kopuruak % 44,4 egin du behera; 2012an 27 izan ziren, eta 2013an, 15. Zauritu arinak, berriz, % 16,79 igo dira; iaz, 131 izan ziren eta aurtengo lehen lau hilabeteetan, 153. Zirkulazioko ezbehar-kopurua % 3,39 jaitsi da, 1.091tik 1.054ra.

[Nafarroako Gobernuaren behin-behineko balantzearen](#) arabera, apirilean bi pertsona hil dira Foru Komunitatean gertatutako zirkulazioko istripuetan, 2012ko hilabete berean baino bat gutxiago.

Aipagarria da hildako pertsonetako bat ibilgailuak harrapatuta zendu zela apirilaren 3an, Iruñean; beraz, aurten, jada, sei dira harrapatuta hil direnak (kopuru guztiaren % 60).

Hildako beste biktima [apirilaren 13an zendu](#) zen haren motozikletak autobus batek harrapatu ondoren N-113 errepidean (Iruña-Madril).